



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailak 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de julio de 2010

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Agindua: honen bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 2. zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleek atzerrian alemana, frantsesa eta ingelesa ikasteko kurtsoetarako plazen deialdia egiten da.

Agindua: honen bidez, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei dei egin zaie, ikastetxeko prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berrizatzeko proiektuak egin ditzaten 2010-2011 ikasturtean zehar eta proiektu horiek aurrera ateratzeko diru-zuzkidurak edo diru-laguntzak emateko baldintzak edo betekizunak ezartzen dira.

Agindua: honen bidez, itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzak emateko deialdia egiten da, ikastetxe horietan ordainketa eskuordetuaren menpeko langileek erretiro partziala hartuz gero, langile horiei lanaldi partzialeko lan-kontratuak egiteko.

Agindua: Unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak prestatu eta Eskola 2.0 web-gunean eskuragai jartzeko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0).

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

Dekretua, Finantzen Euskal Institutuari EKARPEN SPE, SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko baimena emateko dena.

Dekretua, enpresa txiki eta ertain, bakarkako enpresaburu eta profesional autonomoi finantza-laguntza emateko programa garatzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.

Dekretua: Euskadin berrikuntza sustatzeko Zientzia eta Berrikuntza Ministerioarekiko hitzarmena arautzen duena.

Erabakia, sektore estrategikoetako enpresei finantza laguntza emateko 2010eko programa berezia zati batean aldatzekoa.

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriko Plataforma (Tarteak: Urnieta - Hernani) eraikitzeke obrak egiteko 5.000.000 euro baino gehiagoko kontratua egiteko baimena emateko.

Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriko Plataforma (Tartea: Antzuola-Ezkio Itxaso I (Oeste) eraikitze obrak egiteko 5.000.000 euro baino gehiagoko kontratua egiteko baimena emateko.

Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sare berriko Plataforma (Tartea: Andoain - Urnieta) eraikitze obrak egiteko 5.000.000 euro baino gehiagoko kontratua egiteko baimena emateko.

Erabakia, Gasteizko Udalak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari lurzoru baten titulartasuna dohainik lagatzeko akordioa baimentzen duena. Lurzorua Gasteizko Lakuabizkarra egikaritze-unitatean dago eta zuzkidura alojamenduak sustatzeko izango da.

Erabakia, Vitoria-Gasteizko Udalak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari lurzoru baten titulartasuna dohainik lagatzeko akordioa baimentzen duena. Lurzorua Vitoria-Gasteizko Portal de Arriaga eta Simón de Anda kaleen artean dago eta zuzkidura alojamenduak sustatzeko izango da.

Erabakia, Amurrioko Udalak Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioari lurzoru baten titulartasuna dohainik lagatzeko akordioa baimentzen duena. Lurzorua Amurrioko SAPUR 1 egikaritze-unitatean dago eta zuzkidura alojamenduak sustatzeko izango da.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

Erabakia, 2010/2013 Lehiakortasun Enpresarialerako Plana onartzekoa.

Erabakia: 2008ko irailaren 24an Bilboko Udalarekin izenpetutako lankidetzeta-hitzarmenari addenda suskribatzeko baimena ematekoa. Helburua: Erriberako Merkatuko Eraberritze Integralari buruzko Plana burutzea.

Agindua, agregakinen lurpeko ustiategien ikerketa eta garapenerako eta meategien arloko berrikuntzarako proiektu eta jarduerak finantzatzeko diru-laguntzak arautzen dituen eta horien oinarriak onesten dituena.

Agindua: hiriko Merkataritza Lankidetzeta, Dinamizazio eta Lehiakortasunerako eremu-estrategiak sustatzera bideratutako diru-laguntzak arautzen dituena.

Erabakia, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea SA (SPRI) Sozietatearekin lankidetzeta-hitzarmena izenpetzeko baimena ematekoa. Helburua: enpresa sortu berriei (Ekintzaile programa) mailegua ematekoa.

Erabakia: Gasteizko Udalarekin, Merkataritza eta Industriako Arabako Ganbera Ofizialarekin, Merkataritza eta Zerbitzuen Arabako Federazioarekin eta Gasteiz On - Hiriko Merkataritza Sustatzeko Elkartearekin lankidetzeta-hitzarmena izenpetzeari buruzkoa. Helburua: "Urban Commerce" Nazioarteko III. Kongresua egitea.

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

Agindua, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei 2010-2011 ikasturtean zehar egin beharreko Osasun Sustapen eta Heziketaren Berriztapenerako Proiektuak garatzeko deia egiten diena.

Erabakia, Gipuzkoako Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitarioko Euskal fundazioari diru-laguntza bat emateko dena. Helburua: INMA proiektua garatzea (Haurtzaroa eta Ingurumena).

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Erabakia, 5.000.000 euro baino gehiagoko gastua egiteko baimena ematen duena, garapen jasangarria sustatuko duten ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, tokido beste erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomo nahiz merkataritza sozietateei diru-laguntzak emateko.

Erabakia: Euskal Autonomia Erkidegoko landa-inguruneak sustatu eta garatzeko laguntzak arautzen dituen urriaren 7ko 171/2008 Dekretuak oinarrituaz (EREIN programa), 2010eko ekitaldirako laguntza ekonomikoak finantzatzeko, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzeko dena.

Erabakia, Ingurumen, Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioarekin 2010. urterako estatistika arloan lankidetzeta-hitzarmen markoa izenpetzeko baimena emateko dena.

Dekretua, nekazaritza, elikagai eta arrantza sektoreen ikerketa, garapen eta berrikuntzari laguntzak ematekoa.

KULTURA SAILA

Agindua, goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzeko dena.

Agindua, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

Agindua, gastelaniazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

Orden por la que se regula el régimen de concesión de subvenciones para la organización de festivales, ciclos, concursos y certámenes de las áreas culturales de Audiovisuales, Teatro, Danza y Música, y se efectúa la convocatoria para el año 2010.

Agindua, Ikus-entzunezko, Antzerki, Dantza eta Musikaren kultur arloetan jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak antolatzeko dirulaguntzak emateko araubidea ezarri eta 2010erako deialdia egiten duena.

Agindua, musika jarduera profesionaletarako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

1,08 MILIOI EURO PRESTAKUNTZA- ETA HEZKUNTZA- BERRIZTAPENEN PROIEKTUETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko egunez agindu bat onartu du, ikastetxean prestakuntza-proiektuak eta Hezkuntza Berriztapeneko proiektuak egitera unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak deitzen dituen eta 2010/2011 ikasturtean aurrera eraman beharreko proiektu horiek egiteko dirulaguntzak emateko baldintzak zehazten dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe publikoei dirulaguntzak ematea eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza maila eta mota desberdinak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko titularitate pribatuko itunpeko ikastetxeei diruz laguntzea ditu 1,08 milioi euroko zenbateko globaleko deialdi honek helburu, 2010/2011 ikasturtean ikastetxean prestakuntza-proiektuak eta Hezkuntza Berriztapeneko proiektuak egiteko.

Deialdi honen helburu diren prestakuntza-proiektuak testuinguru batean sartutako proposamenak izango dira, irakasleen interes eta premia profesionalek eta, oinarritzko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa dela-eta, irakatsi eta ikasteko prozesua hobetzeko planean ikastetxeak proposatutako prestakuntza-jarduerek eragindakoak.

Hezkuntza-erkidegoei ekarpen berriak egitea, irakasleei haien hezkuntza-praktikarako eta gaitasun profesionalerako ikuspegi berriak, orientabideak eta laguntza ematea eta ikasleei ikaskuntzan hobetzeko aukerak ematea izango dira Hezkuntza Berriztapeneko proiektuen helburu nagusiak. Horretarako, hezkuntza-berriztapena sustatuko dute hezkuntza-sistemaren maila, etapa eta ziklo desberdinetako curriculum- eta antolaketa-esparruetan eta esparru teknologiko, metodologiko eta didaktikoetan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK EGITEKO LAGUNTZAK

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Agindu bat onartu du itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzetarako deia egiteko, ordainketa eskuordetua izan eta erretiro partzialeko sistemara jotzen duten irakasleei lanaldi partzialeko kontratuak egiteko.

Deialdi hau dela eta eman daitekeen dirulaguntza kopurua ez da 4.669.577 eurokoa baino handiagoa izango.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

756.558 € EUSKARAZKO IKASMATERIAL DIGITALETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, gaurko egunez agindu bat onartu du, Unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterial digitalak prestatu eta Eskola 2.0 web-gunean eskuragai jartzeko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0).

Agindu honen xedea zera da: euskarazko ikasmaterial digitalak, oinarrizkoak zein osagarriak, prestatu edo egokitzeko eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko diru-laguntzak, 756.558 euro, arautzea eta horietarako dei egitea.

Unibertsitate aurreko irakasmaitetarako ikasmaterialak hartzen ditu deialdi honek kontuan. Helburu nagusia arlo horretan irakaskuntzan dagoen hutsunea betetzea da eta ikasle-irakasleei beren jardunerako ikasmaterialak eskaintzeko bideak jartzea.

Ikasmaterial horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Eskola 2.0 web-orrian zintzilikatuko dira hezkuntza-komunitateak, edota interesa lukeen beste edonork, eskura izan ditzan.

Ekonomia eta Ogasun Saila

JAURLARITZAK EKARPEN SPE, S.A. SOZIETATEAREN KAPITAL-HANDITZEAN PARTE HARTUKO DU

EKARPEN SPE, S.A. sozietatearen Akziodunen Batzar Orokor Bereziak, 2009ko abenduaren 4ko bileran, sozietatearen kapital soziala 8.054.000 euroan handitzea erabaki zuen, horretarako euro bateko balio nominaleko 8.054.000 akzio nominal berri, 32.216.000 euroko jaulkipen-prima globala dutenak, jaulkiz eta zirkulazioan jarriz, oraingoan eskubide politiko eta ekonomiko berberekin.

EKARPEN SPE, S.A. sozietatearen xede soziala enpresak sustatzea edo bultzatzea da, haien kapitalean aldi baterako parte hartuz.

Euskal Administrazioak bat egiten du EKARPEN SPE, S.A. sozietatearen Akziodunen Batzar Orokorrek onartutako kapital sozialaren handitzearekin, zazpi milioi (7.000.000,-) euroan (nominaleko 1.400.000 euro eta jaulkipen-primako 5.600.000 euro), eta hura ordaintzearekin, Akziodunen Batzar Orokorrek Kapitala Handitzeko Erabakian ezarritako moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak EKARPEN SPE, S.A. sozietatean zuzenean nahiz zeharka izango duen parte-hartzea %28koa izango da.

Ekonomia eta Ogasun Saila

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAKO, BANAKO ENPRESARIENTZAKO ETA PROFESIONAL AUTONOMOENTZAKO FINANTZA-LAGUNTZAREN PROGRAMAKO MAILEGUEN EPEEN LUZAPENA

Dekretu bidez enpresa txiki eta ertaintzako, banako enpresarientzako eta profesional autonomoentzako finantza-laguntzaren programa onartu zen, finantzaketa eskuratzeko gehienez ere 600 milioi €-ko laguntza-programa espezifiko bat baimendu zuena, eta, funtsean, izenburuan aipatzen diren eragile ekonomikoen zirkulatzailerak asetzea xede zuena.

Gaur egungo ekonomia-egoerak finantzaketa-programan definitzen zen hasierako esparrua berriro ere aldatzeko beharra ekarri du, maileguen epeak luzatuz maileguok itzultzea errazagoa izan dadin. Aldaketak beste zenbait aurreikuspen ere egiten ditu, halaber; hain zuzen ere, 2009. urtean indarrean zeuden baldintzen arabera finantza-laguntzaren lerroak eskuratu dituzten erakundeek eta pertsonak, bai eta 2010. urtean zehar orain egin nahi den aldaketaren aurretikoak eskuratu dituztenek ere, oraingo aldaketaren bitartez proposatzen den araudi berriko finantzaketa eskuratu ahal izateko beharrezkoak direnak.

Dekretuaren aurreikuspenak ez dira mugatzen, beraz, programaren babesean, behin aldaketa gertatuta, formalizatuko diren mailegu berrietara; aitzitik, 2009. urtean eta 2010. urteko lehen hilabeteetan formalizatutako maileguak ere barne har ditzake.

Idazketa berri bat eman zaio, ondorioz, otsailaren 9ko 41/2010 Dekretuaren 10. artikuluari ("Maileguen ezaugarriak"); honako hau, hain zuzen ere:

"1.- Honako hauen artekoa izango da maileguen zenbatekoa:

- a) 50.000 € eta 600.000 € artean, enpresa txiki eta ertaintzat.
- b) 10.000 € eta 100.000 € artean, banako enpresarientzat eta profesional autonomoentzat.
- c) Zenbateko horiek kalkulatzeko, abenduaren 30eko 229/2008 Dekretuaren eta abenduaren 30eko 230/2008 Dekretuaren babespean emandako finantzaketa-eragiketen saldo biziak (dekretu honen arabera finantzaketa-eskabidea egin den egunean daudenak) metatuko dira.

2.- Mailegu-eragiketen epea hiru edo bost urtekoa izango da, eta urte bateko gabealdia ezarri ahal izango da, amortizaziorako. Hiru hilean behin egingo da interesen eta amortizazio-kuoten likidazioa, amaitutako epeetan.

Ekonomia eta Ogasun Saila

EUSKADIN BERRIKUNTZA SUSTATZEKO ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA MINISTERIOAREKIKO HITZARMENA ARAUTZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DU JAURLARITZAREN KONTSEILUAK

Finantzaketa-hitzarmenari esker 150 milioi euroko ekarpena egingo da 2010-2013 aldirako.

Maileguak 10 urtean itzuli behar dira, %1,2-ko interes-tasa dute, eta lehen bost urteko gabealdia.

Helburua berrikuntza bultzatzea da, bi administrazioen arteko lankidetzan estuan.

Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzan eta koordinazioari esker, 2010eko martxoaren 19an, Ministroen Kontseiluak Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioaren eta Euskal Herri Administrazioaren arteko Lankidetzan Hitzarmena sinatzea baimendu zuen.

Hitzarmen horren bitartez, Zientzia eta Berrikuntzako Ministerioak 150 milioi euroko kreditu bat eman dio Euskadiri, hamabost urteko amortizazio-epea duena, Teknologia Parkeak kudeatzen dituzten sozietateen, Berriazko Proiektuak garatzen dituzten erakundeen eta Proiektu Estrategikoak burutzen dituzten enpresa handien zientzia- eta teknologia-azpiegiturak eta ekipamendua finantzatzeko.

Hitzarmen hori antolatzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluak Dekretu bat onartu du; Dekretu horren bitartez, jardura ekonomikoak burutzen dituzten eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden erakundeen zientzia- eta teknologia-azpiegiturretako eta ekipamenduko inbertsioak bultzatzeko programa bat ezarri da, epe luzeko finantzaketa emanez, eta programan parte hartzeko baldintzak eta prozedura arautu dira.

Baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan horretarako zehaztu diren kredituetatik iritsiko dira, zenbateko hauetan: 80 milioi 2010eko ekitaldirako, 40 milioi 2011rako eta 30 milioi 2012rako.

Programa horren bitartez, laguntzak eskatzen direnetik ematen direnera ahalik eta denbora gutxien igarotzea espero da; hala, bada, laguntzak espedientea osorik dagoen unearen arabera ordenan esleituko dira, eta administrazio-ebazpen bidez ukatuko dira baldin eta aurreko atalean zehazten den laguntzen zenbateko osoa gainditzen badute.

Ekonomia eta Ogasun Saila

SEKTORE ESTRATEGIKOETAKO ENPRESEI FINANTZA-LAGUNTZA EMATEKO 2010. URTERAKO BERARIAZKO PROGRAMAKO MAILEGU ERAGIKETEN EPEAREN LUZAPENA

Gobernu Kontseiluaren 2010eko apirilaren 13ko Erabakiaren bitartez eta ondoren Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren apirilaren 21eko Aginduaren bitartez, sektore estrategikoetako enpresei finantza-laguntza emateko berariazko programa onartu zen, eta hedatu egin zen horrela aurreko urtean garatutako programa.

Gaur egungo egoera ekonomikoak finantzaketa-programa hartan definitzen zen hasierako esparrua aldatu beharra ekarri du, maileguen epeak malgutzeak errazagoa bihur dezan maileguok itzultzea eta enpresa-ingurunea une honetan jasaten ari den ingurune atzerakor luze honetara egokitzea. Malgutze hori ez da mugatzen, gainera, aurtengo programaren babesean formalizatuko diren mailegu berrietara; aitzitik, 2009. urteko programaren indarraldian zehar formalizatutako maileguak ere barne hartzen ditu.

Mailegu-eragiketen epea luzatu egiten da, ondorioz: hiru edo bost urtetarako izan ahal izango dira, eta zenbateko nagusia amortizatzeko urtebeteko aukerako gabealdia izan ahal izango dute.

Kreditu Ofizialeko Institutuaren (KOI) funtsekin finantziatzen diren eragiketek KOIren lagapen-tasa finkoa gehi %1 aplikatuko dute azken enpresa onuradunarentzat, finantza-erakundeen eta Kreditu Ofizialeko Institutuaren artean sinatutako esparru-kontratuetan adierazita agertzen denez.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

EUSKAL Y-AREN HIRU TARTE BERRI EGITEKO LIZITAZIO-PROZESUA MARTXAN

Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena eman du gaur Euskal Y-aren Gipuzkoako adarrean hiru tarte berri egiteko lizitazio-prozesua hasteko: Urnieta – Hernani, Antzuola - Ezkio Itsaso I (mendebaldea) eta Andoain – Urnieta.

Andoain-Urnieta tarte egiteko aurrekontua 80 milioi euro da, eta 34 hilabeteko epean egin beharko da.

Antzuola-Ezkio mendebaldea tarte egiteko 128.9 milioi euroko aurrekontua izango da, eta 65 hilabeteko epea.

Urnieta-Hernani tarterako berriz, 144.9 milioi euroko aurrekontua, eta 35 hilabeteko epea.

Hiru tarte horien lizitazioarekin Eusko Jaurlaritzak beste aurrerapauso handi bat eman du urtea amaitu baino lehen 761 milioiren esleipenak egiteko.

Joan den hilean Bergara-Antzuola tarteko lanak hasi zirelarik, sei dira abiadura handiko trenaren Gipuzkoako adarrean obratan dauden tarteak: Ordizia-Itsasondo (2,86Km), Beasain ekialdea (2,16Km), Beasain mendebaldea (1,87), Legorreta (3,59), Tolosa (3,79), eta Bergara-Antzuola (4,2).

Horrela bada, Eusko Jaurlaritzak espero du urte amaierako Euskal y-aren Gipuzkoako adarraren % 60 esleituta edo hasita izatea; hau da, adarrak dituen, 76,17 kilometrotatik, 44.

Aurten bertan, urrian, Ezkio Itsaso – Beasain tarteko obrei ekingo zaien, eta abenduan, Antzuola – Ezkio Itsaso mendebaldea, Tolosa-Hernalde, Andoain-Urnieta eta Urnieta-Hernani tarteetakoak. Hortaz, urtea amaitzen denean 11 tarte izango ditugu obratan.

Eta urtea amaitu baino lehen, gainera, Bergara-Bergara eta Antzuola-Ezkio Itsaso ekialdea tarteetako lizitazio-prozesuak hasiko dira.

Gainera, Jaurlaritzak abiadura handiko trenaren Bilboko, Vitoria-Gasteizko eta Donostiako sarreren kontua desblokeatu eta Espainiako Gobernuarekin akordiora iristea lortu du aurten.

2010eko lizitazioak

Tartea	Luzera (Km)	Aurrekontua (M€)BEZa barne	Lizitazioaren hasiera
Bergara-Bergara	3,2	100,66	2010eko iraila
Antzuola-Ezkio/Itsaso mendebaldea	3,6	128,90	2010eko uztaia
Antzuola-Ezkio/Itsaso ekialdea	3,4	133,05	2010eko iraila
Ezkio-Beasain	2,5	61,45	Eginda
Tolosa - Hernialde	3,8	112,48	Eginda
Andoain-Urnieta	2,8	80,08	2010eko uztaia
Urnieta-Hernani	5,2	144,97	2010eko uztaia
Guztira	24,5 Km	761,59 milioi	

2011ko ekitaldiari buruzko datuak

- **honako tarte hauetako obrak hasiko dira:**
Bergara-Bergara (otsaila)
Antzuola-Ezkio Itsaso ekialdea (otsaila)

- **Tarte hauetako lizitazioak egingo dira:**
Hernialde-Zizurkil
Zizurkil-Andoain

Gaur egun ETS honako obra-zati hauetako informazio-txostenak ari da egiten:

- Ezkio Itsasoko geltokia
- Hernani Astigarraga
- Donostiako sarrera
- Astigarraga-Oiartzun
- Oiartzun-Irun

Andoain-Urnieta tartearen xehetasunak

Tarte horrek Andoain eta Urnieta udalerririk zeharkatuko ditu; 2.810 m-ko luzera izango du, baina ia erabat, 2.011, m tunelean joango da, (Andoango tunela), eta, era berean, horietatik 72,44 m, tunel aizunean. Horretaz aparte, bi zubi eraikiko dira: Oriako zubi eta GI-131 errepide gainekoa; guztira, 538 m.

Proiektuaren barruan tuneletara iristeko sarbide-kaminoak diseinatu dira, bai eta zerbitzu guztiak lehengoratzeko lanak (kaminoak, zerbitzuak, eta abar), tarte guztirako drainatze-sistema, trenbide-instalazioak, ...

Urnieta-Hernani tartearen xehetasunak

Ibilbideak bi udalerrri zeharkatuko ditu soilik: Urnieta eta Hernani, 5.250 metroko luzera izango du. Zatirik handiena tunelean doan (Urnietako eta Hernaniko tunelak) 3.651 metroko luzerarekin; horietatik 668 metro tunel aizunean joango dira (Urnietako eta Errotarango tunel aizunak) eta 57 metro, GI-131 Urumea autobiarenean azpitik igarotzeko kutxak hartuko ditu. Horretaz aparte, bi zubi eraikiko dira: Ubaran erreka eta Urumea ibaiaren gaineko zubiak; bien artean, 964 metro egiten dute.

Trazaduraren amaieran hurrengo tartearen lotzen da, Hernani-Astigarragarekin; baina tarte horretako eraikuntza-proiektua oraindik idazten ari dira.

Proiektuak, besteak beste, honakoak ere hartzen ditu: tunel-ahoetarako sarbide-kaminoak, ukitutako zerbitzu guztiak lehengoratzeko lanak eta trenbide-instalazioak. Gainera oso kontuan izan dira obra ingurumenean txertatzeko neurriak, begi-inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin.

Antzuola-Ezkio mendebaldea xehetasuna

Tarteak Antzuola eta Urretxu zeharkatuko ditu, 3,56 km-ko luzeran.

Trenbideak zeharkatuko duten lurraldea malkartsua da, aldapa handiekin eta bailara itxiekin, eta horrek ia zati guztia tunelean egitera behartzen du; hobi biko tunela proiektatu da:

Zumarragako tunelak; ekialdeko ardatzak 2.8 Km-ko luzera hartzen du, eta mendebaldekoak, 2.5 Km-koa. Ibilbide horretan bertan 495 m-ko luzera izango duen zubi bat egingo da Deskarga erreka gainean. Tarte Antzina erreka ibian lotuko zaio aurreko tarteari eta hurrengoarekin Zumarragako tunela igaro eta berehala.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila

JAURLARITZAK ZUZKIDURA ALOJAMENDUEN SUSTAPENA ONARTU DU. 248 ERAIKIKO DIRA, GUZTIRA, AMURRION ETA GASTEIZEN

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Amurrioko Udalak erabakitako partzela baten titulartasunaren doako lagapena. Zuzkidura-alojamenduak sustatzeko izango da (HGDL 1).

Partzelak 3.500 metro koadroko azalera du eta 77 zuzkidura-alojamendu eraikiko dira bertan.

Jaurlaritzak, halaber, Gasteizko Udalak erabakitako bi partzelaren titulartasunaren lagapena ere onartu du, zuzkidura-alojamenduak eraikitzeko, kasu honetan ere.

Lehenengoak 1.760 metro koadro ditu, Simon de Anda eta Arriagako Atearen elkargunean dago kokatua eta 79 zuzkidura-alojamendu eraikiko dira bertan. Bigarrenak 2.822 metro koadro ditu, Lakuabizkarran dago eta 92 zuzkidura-alojamendu hartuko ditu.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAK 2010-2013KO ENPRESA LEHIAKORTASUNEN PLANA ONARTU DU, 11.000 MILIOI EURO MOBILIZATUKO DITUENA

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010-2013ko Enpresa Lehiakortasuneko Plana onartu du gaur, legealdi honetan Euskadiko lehiakortasuna munduko egungo testuinguru ekonomikoa gidatuko duen dokumentua, alegia.

Plana Legebiltzarrean aurkeztuko da, bertan eztabaida eta behin betiko onar dezaten, eta euskal enpresen ahalmen berritzailea bultzatuko du, baita sektoreen, lurraldeen, teknologien, erakundeen eta gizakien arteko harremanak erraztu ere, geroz eta lehiakorragoak, nazioartekotutakoak eta globalagoak diren merkatuetara hobeto egokitutako moduan jarduteko aukera emango duten sinergiak lortze aldera.

Proiektua garatzeko 11.000 milioi euro inguru mobilizatuko dira, eta sektore publikotik nahiz pribatutik lortuko dira.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak egin du plana, baina Eusko Jaurlaritzaren beste sailen lankidetzaz handia izan du, baita Euskadiko beste instituzio, erakunde pribatu, antolakunde eta eragile sozioekonomiko batzuen lankidetzaz ere.

Planaren hausnartze-prozesuan Ikuspegi Orokorreko Mahai batzuk sortu dira, euskal enpresa eta antolakunde garrantzitsuenetako 40 zuzendari baino gehiagoren parte-hartzearekin. Era berean, ikuspegi tematikoko Lantalde batzuk abian jarri ziren, 250 pertsona baino gehiago horietarako deituta.

Eusko Jaurlaritzaz eta enpresez gain, honako hauek ere parte hartu dute lanean: enpresa-erakundeak, klusterrak, sindikatuak, merkataritza-ganberak, gizarte-ekonomiako erakundeak, lehiakortasun-politikan inplikaturiko foru-aldundietako arduradunak, unibertsitateak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileak, garapen-agentziak, industria-politikako espezialistak, lehendakariaren Aholku Batzordea, etab. Eta zeregin bereziki garrantzitsua izan dute Orkestrak (Lehiakortasuneko Euskal Institutua), Euskalitek eta Innobasquek.

Plana egiteko prozesuan, martxan jarri ziren sei Lantaldeek beste eztabaida-gai batzuetan lan egin zuten: Berrikuntza, Nazioartekotzea, Iraunkortasuna, Pertsonak, Elkarren arteko Harremanak, baita Mahai Orokor bat ere.

Aurreko 2006-09ko Enpresa Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Planaren eta 2000-03ko Ekonomia Sustatzeko Erakundearteko Planaren metodologiarekiko berrikuntza batzuk egin dira. Berrikuntza horien barruan, dokumentuaren urteko berrikuspen bat aurreikusi da, eta Merkataritzaren, Turismoaren eta Energiaren esparruak gaineratu dira Planaren barruan

integratuta. Dokumentuan, proposatutako ekintza bakoitzaren praktikan jartzea kudeatuko duten arduradun zehatzak identifikatu dira.

Planaren lan-ildoaren helburua da Euskadi lehiakor eta iraunkor bat lortzea, iraunkortasunaren hiru osagaiak kontuan hartuta: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Horretarako, dokumentua hiru ardatz estrategikotan banatzen da: lehen ardatzaren helburua da ekonomia irekia lortzea; bigarrenaren helburua da ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua lortzea, eta hirugarrenaren helburua da ekonomia iraunkorra lortzea.

Aldi berean, ardatz horiek 14 jardun-ildoren eta 30 ekimen zehatzen bitartez garatzen dira. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren lehiakortasun-arloko politika osoaren bidea markatzeko balio du planak, eta, era berean, beste sail batzuek aurreikusitako ekintzak ere biltzen ditu.

Planaren helburu nagusia da Euskadiren hazkunde ekonomikoa sustatu eta bultzatzea. Aldez aurreko pauso gisa, AMIA analisi bat jasotzen du, euskal ekonomiaren ahuleziak, indarrak, mehatxuak eta aukerak biltzen dituena.

Era berean, Euskadin lehiakortasunarekin lotutako politikan indartuko diren balio batzuk gaineratu dira, hala nola ekintzailtza, ahalegina, irmotasuna, bikaintasun, kalitate eta zorrotasunarekiko gustua, aldaketarako eta mundurako irekia egotea, edo pertsonen eta erakundeen erantzukidetasuna.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAK 3 MILIOI EURO EMAN DITU BILBOKO ERRIBERAKO MERKATURAKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak hitzarmen bat aldatzea onartu du gaur, eta hitzarmen horren bitartez, 3 milioi euro eman dira Bilboko Erriberako Merkaturak erabat birgaitzeko obrak finantzatzeko.

Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak lankidetzak hitzarmen bat zeukaten lehendik sinatuta helburu horretarako. Nolanahi ere, obrak 2012ko lehenengo seihilekora bitarte atzeratu izanak (2010. urtean ekin ordez, hasiera batean aurreikusita zegoen bezala) eragin du akordioak hainbat baldintza aldatu behar izatea.

Gaur onartu den dokumentuan 3 milioi euroak ordaintzeko baldintzak biltzen dira, baita bi erakundeetako lau ordezkari osatuko duten jarraipen-batzorde berri bat sortzea ere. Beraz, Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartuko du merkatuaren edukia definitzeko prozesuan eta merkataritza-nahasketa berria eratzeko lanetan, Bilbo Zaharra biziberritzeko lokomozio-eginkizuna hartuko baitu. Era berean, batzorde horrek eskumena izango du obren bilakaera balioesteko alderdi arketoktinokiari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzak Erriberako Merkaturako proiektuari emandako 3 milioiko finantziario garrantzitsuaz gain euskal udalerrietan merkataritza bultzatzeko emandako laguntza-lineetatik eratorritako beste partida batzuk ere gehitu ahal izango dira.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

831.000 EURO I+GKO PROIEKTUETARAKO ETA LURPEKO HARROBIAK GARATZEKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak laguntza-deialdi bat onartu du gaur agregakinen lurpeko ustiategiak ikertu eta garatzeko proiektuak eta jardunak finantzatzeko.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 831.000 euro bideratuko ditu aurrean jarduerak horietarako. Zehazki, honako kostu hauek ordaintzen laguntzeko dira: langileenak (ikerketa-proiektuan ari diren ikertzaile edo teknikariak), tresna eta materialei dagozkienak, eta kontratu-ikerketei, jakintza teknikoei eta lizentzia bidez erositako edo lorturiko patenteei dagozkien kostuak. Halaber, diruz lagunduko dira ondorengo lurpeko ustiapena prestatzeko jarduerak (segurtasuna finkatzea; sartzeko, iheserako, aireztatzeko eta hustuketarako azpiegiturak ezartzea, baita lurpeko ganberak sortzea ere).

Laguntza-ildoan sartzen dira, era berean, meategiak berritzeko proiektu, ikerketa eta jardunak, baita obrak edo azterlanak egikaritzeak eragindako gastuak ere, betiere elementu nahiz makineria berritzaileen probekin eta esperimentazioarekin loturik badaude. Makinen errentamendua ere diruz lagundu ahal izango da, baldin eta probak egiteko baldin bada.

Nahiz eta ustiapen-kostuak handiagoak izan, lurpeko harrobiek badute abantaila nabarmen bat lur gainekoen aldean, ingurumenaren gaineko eragina askoz ere txikiagoa dela, hain zuzen ere.

Laguntza-ildo hau meategiak berritzera bideratuta dago, eta baliabideen kudeaketan eta ustiapenean eraginkortasuna lortzera. Ildo beretik, meategiak ustiatzeko formula berriak bilatu nahi dira, betiere ingurumena errespetatuz eta baliabide geologikoekiko eraginkorrak izanik.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAK IA 10 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU EUSKADIKO UDALERRIETAN MERKATARITZA DINAMIZATZEKO EKINTZETARA

Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskadiko udalerrietako merkataritza-sektorean lankidetzaz, dinamizazioa eta lehiakortasuna pizteko laguntzen deialdi bat onartu du gaur. Aurten, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak 9.743.457 euro inbertituko ditu Euskadiko udalen eta elkarten –merkatarien elkarten eta elkarte mistoen– arteko lankidetzaz publiko/pribatua sustatzeko ekintza horretan. Akordio horiekin zera lortu nahi da, udal-inguruneen hiriekonomiarako ingurune gisako balioa emateaz gain, udal-estrategiarekiko eskuhartze integratu eta koherente foku gisa jokatu duten zonako estrategiak sortzea, hain zuzen ere.

Laguntzak itzuli beharrik gabekoak dira, eta 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk guztiez gain, biztanle gutxiago izanik merkataritza indartzeko ahalmena duten hirigune historikoa daukaten udalerririk ere zuzenduta daude. Eskualde-ingurunean ekonomia- eta merkataritza-arloko erreferentziagunetzat har daitezkeen herriek ere irekita dago. Bestalde, Euskadiko merkatarien elkarteek, elkarte mistoek eta merkatarien elkarten federazioek edota konfederazioek ere jaso ahal izango dituzte laguntza horiek.

Eskabideak aurkezteko xede diren jardunen % 90eko ekarpena egin ahal izango du Eusko Jaurlaritzak gehienez. Herriko udalaren eta udalerririk merkatarien elkarten arteko akordio sinatua eskatzen da. Laguntzen helmuga askotarikoa izango da: udal-merkatuen eraldaketa integralerako, merkataritza-kaleen espaloiak zabaltzeko edota merkataritza-fluxuak biltzeko lokalak alokatzeko eta birgaitzeko (kontsignak, haurtzaintza-zerbitzuak eta abar) jardunei buruzko azterlanak egitea eta jardun horiek egikaritzea.

Aitzitik, inbertsioak egiteko laguntza tekniko kontratatuzko laguntzak ez dira jasotzen, linea hori Merkataritza Dinamizazioko Bulegoen programaren barnean hartuta baitago.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

GOBERNUAK 5,5 MILIOI BIDERATUKO DITU ENPRESA SORTU BERRIEI MAILEGUAK EMATEKO

Gobernu Kontseiluak gaur bertan baimendu du Eusko Jaurlaritzaren, Industriaren Eraldaketa eta Sustapenerako Baltzua (SPRI) eta Luzaro kreditu sozietatearen arteko hitzarmen bat, zeinaren bidez maileguak emango baitzaizkie Ekintzaile Programari atxikitako enpresa sortu berriei.

Ekonomi eta Ogasun sailburuak eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatutako hitzarmen horri esker, Luzarok 5.580.000 eurotik beherako maileguak eman ahal izango ditu.

Aipatu hitzarmenaren helburua da enpresa txikienei eta sortu berriei epe luzerako finantzaketa lortzen laguntzea, beren proiektua izango delarik berme bakarra.

Eusko Jaurlaritzaren lehentasunetako bat da enpresa txiki eta ertainen sorkuntza eta finantzaketa bultzatzea eta, beraz, Ekonomi eta Ogasun Sailaren, SPRI sozietate publikoaren eta Luzaro erakundearen ahaleginak batuz tresna bat sortu da beharizan horri erantzuna emateko.

Horrela bada, Luzarok maileguak emango dizkie Ekintzaile Programara aurkeztu diren enpresei, baldintza onuragarriak eskainiz interes tasa eta amortizazio epeetan. Horretarako, noski, enpresek hainbat eskakizun bete behar dituzte, hala nola sortu berria izatea (urtebete baino gutxiago martxan), gutxienez hiru enplegu berri sortzea hiru urteko epean, jarduera berritzailea garatzea industrian edo honekin lotutako zerbitzuetan, inbertsioak egitea aktiboetan –pabilioietan izan ezik- eta laguntzak eskatzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroetan (EBZ).

Inbertsioen %30 gutxienez enpresak berak finantzatu beharko du. Maileguak gutxienez 40.000 eurokoak izango dira eta gehienez 180.000 eurokoak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila

JAURLARITZAK GASTEIZKO URBAN COMMERCE III. NAZIOARTEKO BILTZARRARI BABESA EMANGO DIO

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu duenez, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Gasteizen irailean izango den Urban Commerce Nazioarteko Biltzarraren hirugarren edizioan parte hartuko du.

Eusko Jaurlaritzak ekitaldia antolatzen lagunduko du 40.000 euroko finantzaketa emanda, eta beste hainbat erakunderekin hitzarmen bat ere sinatuko du: Gasteizko Udalarekin, Caja Vital Kutxarekin, Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen Federazioarekin, eta Gasteiz On-ekin (Gasteizko Hiriko Merkataritza Sustatzeko Elkartearekin).

Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, Jaurlaritzak hiri-merkataritzari buruzko biltzarrari babesa ematen jarraitzea erabaki du, txikizkako merkataritzaren gaineko eztabaidari eta merkataritza-estrategien garapenari eutsi eta horiek eguneratzearen.

Osasun eta Kontsumo Saila

DEIALDI BERRIA, UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXEEI, OSASUN SUSTAPEN- ETA HEZIKETARI BURUZKO BERRIKUNTZA-PROIEKTUAK EGITEKO

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta Osasun eta Kontsumo Sailak unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak deitu dituzte, 2010-2011 ikasturterako Osasun Sustapenerako Berrikuntza-proiektuak aurkeztu ditzaten.

Balorazio Batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu proiektuak, laguntzak esleitzeko. Aurtengo laguntzak 133.899 eurokoak izango dira guztira. Aurreko ikasturtean, guztira, 70 ikastetxek jaso zuten diru-laguntza.

Osasun eta Kontsumo Saila

OSASUN ETA KONTSUMO SAILAREN ETA BERRIKUNTZA ETA IKERKUNTZA SANITARIOKO EUSKAL FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZAKO HITZARMENA GIPUZKOAKO INMA (HAURTZAROA ETA INGURUMENA) PROIKETUAREN GARAPENERAKO

INMA proiektuaren helburua aire, ur eta haurdunaldian eta bitzta hasierako dietan kutsatzaile nagusien efektua eta horiek haur garapenean eta hazieran duten eragina aztertzea da.

Proiektu horren ekarpenak oso erabilgarriak dira ingurumen mailako arriskuen lehenetsuneko prebentziorako, informazioa eta ezaguerak eskaintzen baititu ingurumen kutsaduraren eta umeen arnas eta neurokonduktual mailako eraginen artean diren mekanismo kausalak ulertzeko. Informazio horrek, Osasun eta Kontsumo Sailari, ingurumen segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten osasuna babesteko politikak egiteko aukera eskaintzen dio.

Berrikuntza eta Ikerkuntza Sanitarioko Euskal Fundazioarekin egindako lankidetzak hitzarmen horrek, lortutako datuak garbitzeko, homogeneizatzeko eta aztertzeko aukera eskainiko du.

Hitzarmen horren ekarpena 30.751 eurokoa da, ondokoei buruzko azterketak ordaintzeko:

- Gizarte desberdintasunak INMA kohorteetako haurdunetan: eraginak haurdun direnen osasunean eta haurdunaldiaren zainketan.
- Organokloratuekiko esposizioa (kloroa duten osagai organikoak) haurdunaldian eta erreproduktzio mailako eraginak.
- Organokloratuekiko esposizioa haurdunaldian eta haurren garapen neurokonduktuala 14 hilabete dutenean.

Gipuzkoan, INMA proiektua 2005ean hasi zen eta beste autonomia erkidegoetako zentroekin lankidetzan burutzen da (Valentzia, Andaluzia, Katalunia, Balear Uharteak eta Asturias).

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

GOBERNUAK 7,1 MILIOIKO DIRU-LAGUNTZA EMANGO DU GARAPEN JASANGARRIA SUSTATUKO DUTEN EKINTZAK BURUTZEKO

Gobernu Kontseiluak 7.100.000 euroko kopurua ematea onetsi du gaur egindako bileran, udalek, mankomunitateek, bestelako tokiko erakundeek, erakunde autonomoek eta tokiko izaera duten merkataritza-sozietateek garapen jasangarria bultzatuko duten ekintzak gauza ditzaten.

Modu horretan, Gobernu Kontseiluak Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren Agindua baimendu du. Agindu horren bidez, lurzoru kutsatuei, atmosferari, biodibertsitateari edo Eskola Agenda 21ari lotutako ekintzak burutzea xede duten diru-laguntzen deialdia egiten da.

Zehazki, 2.500.000 euro bideratuko dira ikerkuntza lanak burutzeko (1,3 milioi) eta lurzoria berreskuratzeko (1,2 milioi). Halaber, gehienez 2.000.000 euro bideratuko dira airearen kalitatea hobetzea nola negutegi-efektuaren gas-emisioak murriztea sustatuko duten ekintzak burutzeko.

Era berean, Euskadiren biodibertsitate biologikoa mantendu edo hobetzea bultzatzen duten ekintzak sustatzeko 2.000.000 euro bideratuko dira, eta beste 600.000 euro Tokiko Agenda 21 eta Eskola Agenda 21aren arteko koordinazioa bultzatuko duten ekimenak burutzeko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

9.245.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DA, LANDA-EREMUAK SUSTATU ETA GARATZEKO

EREIN programaren bidez Euskadiko landa-eremuak sustatu eta garatzeko, 9.245.000 euroko diru-laguntzak bideratzea erabaki du Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran.

Modu horretan, Gobernu Kontseiluak Pilar Unzalu Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren Agindua baimendu du. Agindu horrek "Euskadiko Landa-garapen Jasangarriaren 2007-2013 Programaren" esparruan diru-laguntza horien deialdia egiten du.

Honako hauek dira diru-laguntzen xedeak: Euskadiko landa-eremuen garapena sustatzea eta ekonomiarentzat eta landa-eremuko biztanleentzat oinarrizko zerbitzuak hobetu eta sortzeko bidean aurrera egitea; enpresak sortu eta hobetzea; edo landa-ondarea babestea. Horien xedea landa-inguruetakoz zerbitzuen kalitatea hiri-inguruetakoeekin parekatzea da.

Laguntza hauen artean enpresak sortu, hedatu eta modernizatzen bideratutakoak daude; landa-eremuetan enplegua sortzeko diru-laguntzak; eta etxebizitzari bideratutako diru-laguntzak.

Deialdi honetan aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko orduan, proiektua kokatzen den ingurunearen landa-izaera maila eta proiektuaren bideragarritasuna eta inguruko sozioekonomian duen eragina kontuan hartuko dira.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURAREN ESTADISTIKAK BURUTZEKO HITZARMENA SINATZEA ONETSI DA

Gobernu Kontseiluak Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurunearen Ministerioarekin hitzarmen bat sinatzea erabaki du gaurko bileran, Nekazaritza, Arrantza eta Elikaduraren Estatistiken 2010 Programa gauzatu dadin.

Modu horretan, Pilar Unzalu Ingurumen Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak akordio hau gauzatzeko baimena eman du. Akordioa 2009ko apirilean bi aldeek sinatutako Lankidetzarako Esparru-hitzarmenean oinarritzen da.

Hitzarmen hau bi erakundeek landutako estatistikak bateratu eta alderatzeko sinatzen da, eta halaber, informazioa biltzeko iturri bakarra ezartzea gomendagarria dela uste osoa izanda. Hain zuzen ere, informatzailearentzat bikoiztasunak, desadostasunak eta eragozpenak saihestu daitezzen, eta era berean, estatistika-programa gauzatzeko gastua murriztu dadin.

Eusko Jaurlaritzak 150.946 euro bideratuko ditu akordio hau gauzatzera. Akordioaren arabera, erkidegoko administrazioak informazioaren bilketa eta tratamendua eta hainbat gairen inguruko emaitzen lanketa zuzendu eta gauzatzeko konpromisoa hartzen du. Besteak beste, honako gaiei dagokienez: lurraldeko segmentuei buruzko inkesta, ereite eta bilketaren egutegia, laborantza, mahasti eta ganaduaren azalerak eta produkzioak, arrantza sektorearen adierazle ekonomikoak edo prezioen estatistikak.

Informazioa Ingurumen, Landa Ingurune eta Itsas Ingurune Ministerioari helaraziko zaio, eta ministerioak Eusko Jaurlaritzak egin beharreko datuen bilketa eta lanketa 135.230 euroko ekarpenaren bidez finantzatuko du.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

NEKAZARITZA, ELIKADURA ETA ARRANTZA SEKTOREEN I+G+b DIRUZ LAGUNTZEKO DEKRETUA ONETSI DA

Nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreen ikerketa, garapena eta berrikuntza suspertu eta sustatzera zuzendutako diru-laguntzen araudia ezartzen eta arautzen duen dekretua onetsi du Gobernu Kontseiluak gaurko bileran.

Dekretuak jasotzen dituen laguntzen helburua eraginkortasuna areagotzea, hazkunde jasangarria laguntzea eta Euskadiko nekazaritza, elikadura eta arrantza sektoreen arteko lankidetzaren sustatzea da.

Diru-laguntzak jaso ditzaketen jardueren artean honako hauek daude: oinarrizko ikerketa, industria-ikerketa eta garapen esperimentalaren proiektuak; I+G+b proiektuei lotutako bideragarritasun teknikoaren azterketak; eta enpresa gazte eta berritzaileen edo/eta oinarri teknologikoa duten enpresa berrien proiektuak.

Halaber, zerbitzuen jardueretan prozesuei eta antolaketari lotutako berrikuntza-proiektuak eta produktu, prozesu eta teknologia berriak garatzeko lankidetzaproiektuak jarduera horien barruan daude.

Kultura Saila

EUSKO JAURLARITZAK 430.000 EURO BIDERATUKO DITU GOI-MAILAKO KIROL-LEHIAKETEN ANTOLAMENDURA

Gobernu Kontseiluak Kultura sailburuaren agindu bat onartu du, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak sustatzeko diru-laguntzen lerroa ezartzen duena. Deialdi honetako diru-laguntzetarako aurreikusitako gehieneko guztizkoa 430.000 euro da.

Agindu honetan, 2010ean egin edo hasten diren goi-mailako kirol lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak emateko erregimena ezartzen da. Goi-mailako kirol-lehiaketak izango dira nazioarteko edo Europako federazio baten edo nazioarteko izaerako liga profesional baten egutegi ofizialetan bildutako kirol-lehiaketak. Deialditik kanpo geratuko dira erakusketa- edo ikuskizun-izaerako kirol-lehiaketak. Eusko Jaurlaritzarentzat goi-mailako kirol lehiaketen antolamendua sustatzea garrantzitsua da, kirola egitera bultzatu, goi-mailako euskal kirolariei lehiaketa-marko bat eman eta jarduera ekonomikoa sortzen dutelako, eta horregatik egin du deialdi hau.

Aurreikusitako diru-laguntzetarako gehieneko guztizkoa 430.000 euro da eta diru laguntza horiek honako hauek eskatu ahal izango dituzte: kirol-federazio, -klub eta -taldeak eta merkataritza-sozietateak, kirol-helburua dutenak, legez eratuta eta dagokien erregistroan inskribatuta daudenak, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak; aurreko atalean aurreikusten ez diren nortasun juridikoko beste entitate batzuk, legez eratuta eta dagokien erregistroan inskribatuta daudenak, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dutenak, eta aldizka edo noizbehinka kirol-modalitateen inguruko jarduerak antolatzen dituztenak; edo Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

Aurreikusitako diru-laguntzen lerroak honako hauek dira:

1.- Ehun mila (100.000) euro, nazioarteko edo Europako federazio baten egutegi ofizialean bildutako lehiaketak diruz laguntzeko, munduko txapelketa edo Europako txapelketatzat hartzen direnak, edizio bakarrean egin eta zirkuitu edo liga formatua ez dutenak. Kategoria horri esleitutako zuzkidura onartutako eskaeren artean zati berdinetan banatuko da, eta lehiaketarako diru laguntzak inola ere ezingo ditu eskatutako zenbatekoa edo honako muga hauek gainditu:

- a) Munduko txapelketak: berrogeita hamar mila (50.000) euro.
- b) Europako txapelketak: berrogei mila (40.000) euro.

2.- Berrehun eta berrogeita lau mila (244.000) euro, nazioarteko federazio baten edo zirkuitu edo liga formatuko munduko txapelketa baten egutegi ofizialean edo maila goreneko egutegiko probetan sartutako kirol-lehiaketak antolatzeko.

3.- Laurogeita sei mila (86.000) euro, nazioarteko edo Europako federazio baten edo nazioarteko liga profesional baten egutegi ofizialean bildutako kirol-lehiaketak antolatzeko, aurreko puntuetan araututako beste bi lerroetan sartzen ez direnak.

Kultura Saila

JAURLARITZAK ONARTU DITU GAZTELANIAZKO ETA EUSKARAZKO LITERATURA-LANAK ARGITARATZEKO LAGUNTZAK

Hainbat eremutan euskararen hedapena eta, zehazki, literatura-lanak euskaraz argitaratzeak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan gaztelaniazko literatura-lanak argitaratzeak suposatzen duen ahalegina sustatzeko, Kultura Sailak ezinbestekoa deritzo argitalpenak laguntzeko sistema bat ezartzeari. Ildo horretan, Gobernu Kontseiluak Kultura sailburuaren bi agindu onartu ditu, literatura-lanen argitalpenera 100.000 euro (gaztelania) eta 455.404 euro (euskara) zuzentzen dituztenak.

Kultura Sailak bere babesak eta lankidetzak eman nahi die Euskal Autonomia Erkidegoan dauden argitaletxeei, literatura gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzearen gastuak ordaintzera zuzendutako diru-laguntza horien bidez. Diru-laguntza horiek funts publikoak esleitzeko jarraitu beharreko publizitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioen arabera esleituko dira.

Azken urteetan, euskarazko lanak argitaratzeko laguntzen lerro bat deitu da urtero, baina orain arte ez da berariazko deialdirik egin gaztelaniazko literatura-lanen argitalpenerako. Kultura Sailaren babesak kultura-aniztasun eta -dibertsitatea bermatzen lagun dezake, hartara euskal biztanleen kulturarako sarbidea erraztuz. Halaber, argitaletxe horiek euskal idazleei hurbiltzea ere Euskadin jaio diren edo bertan bizi diren egileen lanak argitaratzeko bultzada izan daiteke. Horregatik guztiagatik, egoki iritzi zaio 2010ean gaztelaniazko literatura-lanen argitalpenerako laguntzen modalitate berri hori abian jartzeari.

Argitalpenaren alorreko enpresen euskarazko literatura-lanen urteko argitalpen-planen kostuen zati bat estaltzera zuzendutako laguntzen zenbatekoa, 2010erako, 455.404 euro da, eta gaztelaniazko literatura-lanetara zuzendutakoa, 100.000 euro.

Argitalpen-alorreko enpresek argitalpen-planaren proiektu bat aurkeztuko dute 2010ean argitaratuko dituzten literatura-liburuak bilduko dituenak. Liburu-kontzeptua ekainaren 22ko 10/2007 Legearen, irakurtzearenaren, liburuarenaren eta liburutegienaren, definizioaren arabera ulertuko da, eta inprimatuta edo irakur daitekeen beste edozein euskarritan argitaratu ahal izango da.

Aurkeztutako argitalpen-planean bildutako liburuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Jabetza intelektualaren inguruan indarrean dagoen araudiaren arabera eta ISBN eta lege-gordailua esleitzeko legezko izapideak beteta argitaratzea.
- b) Paperean argitaratzen diren kasuetan, gutxienez, 1.000 aleko tirada izatea, poesia-, saiakera- eta antzerki-lanen kasuan ezik, 750 alekoa izan beharko baitu gutxienez.

c) Gutxienez, 50 orri izatea, komikiek, haur-liburuek, poesiakoek eta antzerki-lanek ezik.

d) Paperean argitaratzen diren kasuetan, liburu-dendetan, gutxienez, 500 ale merkaturatzea, poesia, saiakera eta antzerkiko lanen kasuan ezik, 350 ale merkaturatu beharko baitira. Eta euskarri digitalean argitaratzen diren kasuetan, argitaletxea berarenaz gain, beste plataforma digitalen batean merkaturatzea.

e) Lehen argitalpenak edo duela 10 urte baino gehiago argitaratutako titulu berrargitalpenak izan beharko dute. Ez dira diruz lagunduko aurreko urteetan paperean eta orain euskarri digitalean argitaratutakoak, ez eta alderantzizko kasuak ere.

f) Titulu bera, ekitaldi berean, euskara batuan eta euskalkiren batean argitaratzen bada, argitaletxeak diruz lagundu ahal izango den obraren bertsioa hautatu beharko du.

g) Titulu bat edozein bertsiotan aurkezten badute balizko hainbat erakunde onuradunek, ekitaldi berean edo desberdinean, lehenengo aurkeztutakoa soilik lagundu ahal izango da diruz.

h) Titulu bera urte berean euskarri batean baino gehiagotan argitaratzen bada, argitaletxeak bakarra aurkeztu beharko du.

Kultura Saila

JAURLARITZAK 250.000 EURO ONARTU DITU HAINBAT KULTURA- ESPARRUTAN JAIALDIAK, ZIKLOAK, LEHIAKETAK ETA SARIKETAK ANTOLATZEKO

Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu du, dagoeneko, ikus-entzunezkoen, antzerkiaren, dantzaren eta musikaren kultura-esparruetan 2010eko ekitaldian jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen agindua. Ekitaldi horiek espezializazio edo berezitasun handikoak izan behar dute, eta interes berezia izan beharko dute Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-panoramarako. Diru-laguntza horietarako, 250.000 euro erabiliko dira.

Kultura Sailarentzat egokia da bide bat irekitzea Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jaialdiak, zikloak, lehiaketak eta sariketak babestu ahal izateko; izan ere, babes hori ematea bere eskumenen barruan sartzen da eta, horretarako, diru-laguntzak emango ditu ikus-entzunezkoen, antzerkiaren, dantzaren eta musikaren kultura-esparruetan. Neurri honen bitartez, formula bat lortu nahi da gizarteak kultura-ekoizpenaz gozatu ahal izan dezan, kulturaren edozein arlotan.

Agindu honen arabera ematen diren diru-laguntzak lehiaketa bidez esleituko dira; hortaz, laguntzarako ezarritako gehienezko kopurua errespetatuz, bakarrik aukeratuko da, ezarritako irizpideei jarraituz, jardueren kalitatea eta bideragarritasuna bermatzen duen onuradun-kopurua, jardueren dimentsioa kontuan hartuta. Diru-laguntza hauek finantzatzeko kredituaren zenbatekoa, guztira, berrehun eta berrogeita hamar mila eurokoa (250.000) izango da. Pertsona fisiko edo juridiko publiko zein pribatuek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak, baldin eta aginduan aipatzen diren kultura-arloetako jarduerak edo programak egiten badituzte. Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Diruz lagun daitezkeen jarduerak baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Entitate antolatzailearen jatorria dena dela, programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira 2010eko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean.

b) Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programak edo jarduerak ekonomikoki bideragarria izan behar du. Bideragarritasun hori egiaztatzeko, aurrekontu orekatua aurkeztu beharko da, hau da, gastuak eta sarrerak baliokideak diren aurrekontu bat, finantziatorako ezarritako mugak ere errespetatzen dituena. Diru-laguntza hauetatik kanpo geldituko dira kultura-programazio orokorrak – beraz, entitate eskatzaileek jaialdi, ziklo, lehiaketa edo sariketa zehatzak aukeratu beharko dituzte beren programetatik deialdira aurkezteko–; aurkeztutako dokumentazioaren arabera eta balorazio-batzordearen iritziz tokiko zein eskualdeko esparrua baino hartzen ez dutenak, eta aurkeztutako dokumentazioaren arabera eta balorazio-batzordearen iritziz ikus-

entzunezkoen, antzerkiaren, dantzaren edo musikaren esparruei lotutako eduki nagusiki kulturala ez dutenak, arlo horiek baitira deialdian sartzen direnak.

Kultura Saila

JAURLARITZAK 439.000 EURO ONARTU DITU MUSIKA-JARDUERA PROFESIONALETARAKO

Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako aginduak diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen ditu 2010eko ekitaldian edo, modalitate batzuetan, 2010ekoan eta 2011koan burutuko diren musika-jarduera profesionaletarako. Laguntza horietarako gehienezko zenbatekoa, guztira, 439.000 eurokoa izango da.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak egoki iritzi dio musika sustatzeko aukera emango duen bide bat irekitzeari eta, ildo horretatik, diru-laguntzak emango dizkie hainbat proiekturi jarduera profesional hauek burutzeko: musika-konposizioak, musika-partitura inprimatuen argitalpena, musika-ekoizpena, musika-birak, musika zabaltzeko enpresa-proiektuak eta musika-azoketara joatea. Neurri honekin, euskal musikarien sorkuntza-lana sustatzeko formula bat lortu nahi da eta, gainera, aukera eman nahi zaie musikariei beren lana aitortua izan dadin eta lan horien finantziazioa handituko duten merkatuak ireki daitezten.

Deialdiaren barruan modalitate hauek sartzen dira:

- Musika-konposizioa

Atal honetan, 2010eko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra arte egin eta erregistratzen diren musika-konposizioak babestu nahi dira. Edozein jatorrizko obra joko da musika-konposiziotzat baldin eta partitura batean jasota badago (musika elektroakustikoaren kasuan grabazio batean). Atal honetarako, 34.000 euro izendatu dira.

- Musika-partitura inprimatuen argitalpena

Laguntza-modalitate honetan, 30.000 euro izendatu dira musika-partitura inprimatuak argitaratzeko, zuzenean interpretatu daitezten sustatzeko. Aurkezten diren proiektuak, edo horien fase partzialak, 2010eko urtarrilaren 1a eta 2011ko abenduaren 31 bitartean garatuak izan behar dira. Deialdi honetatik kanpo gelditzen dira, berariaz, material didaktikoak.

- Musika-ekoizpena

Atal honetan, 100.000 euro izendatu dira musika profesionalaren ekoizpena bultzatzeko. Aurkezten diren proiektuak, edo horien fase partzialak, 2010eko urtarrilaren 1a eta 2011ko abenduaren 31 bitartean garatuak izan behar dira eta, gainera, denbora-tarte horretan lanaren aurkezpen publikoren bat aurreikusi behar da, dela zuzenean, dena disko-formatuan. Arautzen diren laguntzen ondorioetarako, lan bat zuzenean edo disko-formatuan jendaurrean

lehenengo aldiz aurkezteko behar diren entsegu eta jarduera material guztiak joko dira ekoizpentzat.

- Musika-birak

Modalitate honetan, 165.000 euro erabiliko dira Euskadin jaio edo bizi diren musikariek 2010ean zehar musika-birak egin ditzaten Euskal Autonomia Erkidegoko mugetatik kanpo. Gutxienez 6 kontzertu eman beharko dira lau toki desberdinetan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Muga hori ez da kontuan hartuko musika-azoka profesionaletan egiten diren emanaldien kasuan. Proiektuek ezin izango dituzte diru-laguntza hauek jaso baldin eta biran ibiliko diren pertsonen kopurua 20tik gorakoa bada, emanaldiak herrietako jaietan edo dantzaldietan egiten badira edota kalean egiten badira inolako kontraturik sinatu gabe.

- Musika zabaltzeko enpresa-proiektuak

Atal honetan, 100.000 euro erabiliko dira profesionalek Euskadin ekoiztu edo argitaratu duten musika sustatzeko lanak bultzatzeko. Ezinbesteko baldintza izango da profesional horiek ekoizpenaren arloan eta/edo edozein eratako musika-agente gisa jardutea, edota 2009an Euskadiko hiru artista edo talde desberdinentzat, gutxienez, musika-ekoizpeneko lanak egin izana. Aurkezten diren proiektuak, edo horien fase partzialak, 2010eko urtarrilaren 1a eta 2011ko abenduaren 31 bitartean garatuak izan behar dira eta, besteak beste, honelako jarduerak hartuko dira kontuan: musika-ekoizpenak edo argitalpenak sustatzeko jarduera bereziak antolatzea edo zerbitzuak abiaraztea edo soinuak, ikus-entzunezko edo informatikako material grafikoak sortzea eta argitaratzea (liburuxkak, katalogoak etab.).

- Musika-azoketan parte hartzea

Modalitate honetan, 100.000 euro erabiliko dira sektoreko enpresek musika-azoka eta -merkatuetan parte har dezatela bultzatzeko. Horretarako, bidaia-poltsak emango zaizkie 2010ean egiten diren azoka profesionaletara doazen enpresei. Enpresen arteko merkataritza-topaketak egiteko espazio bat gaitzen duten musika-gertakariak joko dira azoka profesionaltzat, baldin eta espazio horietara sartzeko, aldez aurretik inskripzioa ordaindu behar bada.